

Eskubideak #KonexiorikGabe



**DESINFORMAZIOA
ETA GORROTO DISKURTSOAK
INGURUNE DIGITALEAN**



Save the Children



Gizarte eta Politika Intzidentziaren ataleko zuzendaria: Catalina Perazzo; *hautzaroari buruzko politiken arduraduna:* Carmela del Moral;
egilea eta koordinatzailea: Carmela del Moral/Clara Burriel; *komunikazioa:* Miguel Borque/Naroa Salgado;
arte eta maketazioa: Óscar Naranjo/Elena del Real; *ilustrazioak:* Germán Gullón/VALBHY Design.



Argitaratzailea:
Save the Children Espainia
2024ko uztaila

Sarrera

Save the Childrenek **Derechos #SinConexión, un análisis sobre derechos de la infancia y la adolescencia** [Eskubideak Konexiorik gabe, haur eta nerabeen eskubideei buruzko azterketa bat] txostena argitaratu zuen 2024ko uztailean. Txosten horrek ingurune digitalean haurrek eta nerabeek dituzten eskubideak eta horien babes aztertzen ditu, eta bere helburua da ingurune horrekin zernolako harremanak dituzten eta eremu horretan haien eskubide guztiak bete daitezzen nola bermatu daiteken ulertzea, edozein motako indarkeriaren aurrean babesturik egon daitezzen.

Haurrek eta nerabeek Internet eta sare sozialak nola, zergatik eta zertarako erabiltzen dituzten ikertzen du txostenak: ordu kopurua, eduki mota, nabigatzean nola sentitzen diren, eta ingurune digitalak dituen arrisku eta erronkei aurre egiteko prest ote dauden. Horrekin batera, nerabeen ongizate emozional nola psikologikoari eragin diezaioketen online jokabide eta edukiak ere jorratzen ditu. Txostenean jasotzen diren jokabideez gain, ordea, badira beste arrisku batzuk ere, eta horiek modu independentean aztertzen dira, duten garrantziagatik.

Hala, **Derechos #SinConexión** txostenaren eranskin honetan jorratzen da haur eta nerabeei ingurune digitalean eragiten dien gai erabakigarri bat: desinformazioa eta gorroto diskurtsoekiko esposizioa. Internetek demokratizatu egin badu ere informazioarako sarbidea, erraztu egin du eduki oker eta kaltegarrien zabalpena ere, estereotipo negatiboak eta bizitzeko eredu irrealak iraunarazten eta gorroto diskurtsoak sustatzen dituztenak. Eduki horien eraginpean egoteak urratu egiten du, zuzenean, haurrek eta nerabeek informazio egiazko eta seguru baterako duten eskubidea. Izan ere, ingurune digitalean geroz eta kolokago dagoen funtsezko eskubide bat da, noiz eta sare sozialak bihurtu direnean neska-mutil askorentzat informazio-iturri nagusienetakoa.

Eranskin honek arrisku horiek nerabeengan duten inpaktua aztertzen du azterketa zehatz baten bidez, eta generoaren arabera inpaktu horrek dituen aldeak ere aztertzen ditu. Era horretan, ikusten da mutilen eta nesken artean aldea dagoela informazioaren pertzepzioaren eta kontsumoaren gainean, eta agerian uzten du ingurune digitalean desinformazioaren eta gorrotoa eta estereotipo negatiboak zabaltzen dituzten diskurtsoen aurrean haurrak eta nerabeak hezteko eta babesteko dagoen behar premiazkoa.




1. Informazio faltsua eta gorroto diskurtsoekiko esposizioa

Internet funtsezkoa izan da informazioaren sarbiderako bilakaeran, inolako zalantzarik gabe; baliabide horretan, baina, informazio ustel ugari dago, eta, horrez gainera, eredu eta estereotipo kaltegarriak bultzatzen eta sustatzen ditu, gorroto diskurtsoan bihurtzeraino.

Haurren Eskubideen Batzordeak berak, ingurune digitalean haurrek dituzten eskubideei buruzko bere 25. zenbakiko Ohar Orokorrean (2021), eduki mota horiek aipatzen ditu ingurune digitalak dakartzan arriskuei heltzeko orduan sortzen den arazo nagusietako bat denaz bezainbatean: “Ingurune digitalean, egon daiteke genero-estereotipoak, diskriminazioa, arrazakeria, indarkeria, pornografia eta esplotazioa bultzatzen dituen informazioa, bai eta kontakizun faltsuak, informazio ustela eta desinformazioa eta hurrak jarduera ez-zilegietan edo kaltegarrietan parte hartzera bultzatzen dituen ere. Informazio hori askotariko iturrietatik etor daiteke: beste erabilzaile batzuek, eduki komertzialen sortzaileengandik, delinkuente sexualak edo terroristatzat edo muturreko biolentotzat hartzen diren talde armatuak”.

1. grafikoa. **Informazioa atzitzeko bitartekoak**¹




1 “Zer bitarteko lehenesten duzu zure inguruan gertatzen diren gauzen gaineko informazioa lortzeko (adierazi dagozkion guztiak)?” galderari erantzunak.

1.1. Informazio-iturri fidagarriekiko pertzepzioa

Informazio faltsua zabaltzeak zuzenean urratzen du haurrek eta nerabeek informaziorako duten eskubidea, bereziki kontuan hartuta nerabeen % 60k adierazten duela sare sozialak direla informazioa eskuratzeko erabiltzen duen bitarteko nagusia. Sareak dira iturri nagusietako bat, eta familia eta lagunak soilik daude horien aurretik. Telebistaren maila berean daude, eta komunikabide tradizionalen aurretik, hala nola onlineko prentsaren aurretik. Gainera, horietako %16k uste du sarean eduki-sortzaileak informazio-iturri ona direla edonondik ere, eta ia %70ek uste du hala izan daitekeela zenbait unetan.

Gai horretan bereziki garrantzitsua da nesken eta mutilen artean ematen den aldea: mutilen %23,4k uste du eduki sortzaileak informazio-iturri fidagarriak direla, nesken %9,4ren aldean. Alde hori bereziki esanguratsua da Eranskinean eduki-sortzaileen profil jakin batzuk aztertzen dituen honen atalerako.

2. grafikoa. **Uste duzu sare sozialak eta eduki sortzaileak (youtuberak, tiktokerak eta streamerak, oro har) informazio-iturri ona direla?**



1.2. Sare sozialetako gorroto mezuekiko esposizioa

Neska-mutilen elkarrizketetan ikusi dugunez, nerabeek berek ikusten dute sare sozial batzuetan gai polemikoak edo gorroto diskurtsoak lehenesten eta saritzen direla.

Gorrotu diskurtsoaren eta gorrotu delituaren artean bereizi beharra dago.

Gorrotu delitua da gorrotu delituak har dezakeen modalitateetako bat, eta Kode Penalaren 510. artikuluan jasotzen da. Estatuko Fiskaltza Nagusiak artikulua horretan jasotzen diren delituak interpretatzeko jarraibideak azaldu ditu bere 7/2019 Zirkularrean. Gorrotu diskurtsoei buruz, esan beharra dago ez dagoela definizio unibertsal bat, baina Nazio Batuek honela deskribatzen du gorrotu diskurtsoaren kontrako borrokaren Estrategiaren eta Ekintza Planaren esparruan: “pertsona edo talde bati buruz, zer diren kontuan hartuta, hots, haren erlijioan, etnian, nazionalitatean, arrazan, kolorean, jatorrian, generoan edo beste nortasun-era batzuetan oinarrituta, hizkuntza gutxiesgarria edo diskriminatzailea erasotzen edo erabiltzen den edozein komunikazio edo portaera mota, ahozkoa zein idatzizkoa”. Europako Kontseiluak ere antzeko definizio bat eman izan du Gorrotu diskurtsoa borrokatzeko bere Gomendioan (CM/Rec(2022)16), eta hauxe dela esaten du: “pertsona baten edo pertsona-talde baten aurkako indarkeria, gorrotua edo diskriminazioa bultzatzen, sustatzen, zabaltzen edo justifikatzen duen edozein adierazpen mota, edo pertsona edo pertsona-talde horren benetako edo esleitutako ezaugarri pertsonalengatik, adibidez arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea, jatorri nazionala edo etnikoa, adina, desgaitasuna, sexua, genero-identitatea eta sexu-orientazioa dela-eta”.



Neska-mutilek berek elkarrizketetan adierazi zuten sare sozialetan arrazarekin edo sexualitatearekin lotutako estereotipoak sustatzen dituzten edukien eraginpean zeudela. Mezu horietako asko konbentzio sozialak apurtzera bultzatzen duten kutsu oldarkor nola desafiatazailerik erabiliz helarazten dira, nerabeentzako erreferenteak diren eragin handiko figura digitalen bidez. Alderdi horiek bereziki eraginkorrak izan daitezke gizarte-identitatea, hain zuzen, botere harremanak eta une horretara arte beren bizitza eta beren balio-sistema ezbaian jartzetik abiatuz eraikitzen den adinean gertatzen direnean.

“Hori arrazismoa da goitik beheraino (...), fikziozko pertsonaia bat da azkenean, zer axola dio, ba? (...) bost axola beltza, zuria, txinatarra, italiarra edo frantsesa den (...) pertsona arrazializatuak ez dira agertzen horrenbeste filmetan”.

– Neska, 17 urte

“Mutil batek (...) neska izan nahi badu eta jantziak jartzea eta makillatzea nahi badu, niri berdin zitzaidan, egia esatera, baina ez zait bidezkoa iruditzen mutilak direlako ezin jantzi izatea eurek nahi duten bezala (...)ez dut bidezkoa ikusten ‘ezetz, ezetz’ esatea ‘emakume kontuak direlako’”.

– Neska, 17 urte

Horren adibide garbi bat dira jarrera matxista, arrazista eta homofoboetan oinarritzen den *status quo*arentzat mehatxu diren taldeak, norbanakoak zein gizarte-mugimenduak diskriminatzen dituzten diskurtsoak. Dirudienez, mutilak gehiago ari dira onartzen mota horretako diskurtsoak, genero-indarkeriaren ukapena, esate baterako. 2023ko Gazteria eta Generoa Barometroaren² emaitzak horren erakusgarri dira. “Genero-indarkeriarik ez dago, asmakizun ideologiko bat da” esaldiarekin zenbateraino ados zeuden galdetzen zitzaien bertan. 2019tik hazten joan da galdera horri baietzarekin erantzuten zioen mutilen portzentajea: %11,9 zen 2019an, zifra %20ra igo zen 2021ean, eta 2023an %23k genero-indarkeria asmakizun ideologiko batekin lotzen zuten.

“Mutilak gero eta errektiboago daude, bazterrera uzten ari garela uste dute. Ikastetxeetan, ‘gaiztoaren’ rola egiten zuena, normalean erakargarriena, matxistena eta negazionistena zenak betetzen zuen. Kezkagarria da, eta hausnartu beharrean gara horiei nola esan ez dela euren kontrako gauza bat”.

– Ingeniari informatikoa, komunikazio digitalean aditua eta unibertsitateko irakaslea

Diskurtsohoriek, heinbatean diskurtsoa eta botere adituaren antzatzat mehatxagarriak diren eskari edo jokabideak desaktibatzeke kontrol sozial bat besterik ez direnak, bereziki kezkagarriak dira, zailtasun handia dagoelako horiek datuekin edo informazioarekin aurkaratzeko eta desaktibatzeke. Gainera, informazio faltsu horri kontra egiteaz gain, horrek lortutako helmen eta ikusgarritasun emozional bera sortu beharra dago. AAren garapenean ere kezka eragiten du gorroto diskurtsoaren ikusgarritasun eta helmen horrek. Izan ere, ingurune digitalean den edukia “ikasten” duenez, hainbat estereotipo iraunaraz ditzake.

2 Sanmartín, A., Gómez, A., Kuric, S. eta Rodríguez, E. (2023). Gazteria eta Generoaren Barometroa, 2023. Madril: Centro Reina Sofía de Fad Juventud. DOI: 10.5281/zenodo.10144131

“Plataformei oso ondo doakie edo dezente lehenesten dute gorrotoaren alderdia. Twitteren ikerketa-taldeak azterketa bat egin zuen ikusteko eskuin muturraren mezuak zergatik egiten ziren askoz azkarrago biralak gezurrei kontrajartzen ziren beste mezu batzuk baino Twitter bezalako ingurune batzuetan”.

– Ingeniari informatikoa, komunikazio digitalean aditua eta unibertsitateko irakaslea

Neskek erreakzio ezberdina dute gorroto diskurtsoen aurrean, askotan eurak direlako haien jasotzaileak eta, oro har, mezu oldarkor eta iraingarriak jasotzen dituztelako, zenbaitetan hitz gozo faltsuen itxurapean. Egitez, mutilekin eta neskekin izandako elkarriketan, Internet neska eta emakumeentzat gune oldarkorragoa eta biolentoagoa dela identifikatzen dute.

“(…) Interneten, gaur egun, bikinian den neska batek askoz oihartzun handiagoa izango du bainujantziarekin den mutil batek baino, baita mutila askoz guapoagoa bada ere; jarri nahi duzuna, baina neskak irabaziko du beti. Beno, neskaren arabera ere badago hori, baina... ziurrenik neskak askoz bisita gehiago izango ditu mutil batek baino”.

– Mutila, 16 urte

“Nik badut lagun bat, neska bera, eta... ezer erakusten duen eta erakutsi nahi ez duen argazki batengatik, jendeak honelakoak esan izan dizkiona: ‘jo, zelakoa zaude’, ‘neska katxarroa zaude’, ‘jan egingo zintuzket’ eta ez dakit zer eta horrelakoak, noiz eta... horrelakoak entzutea desatsegina denean, areago oraindik ezagutu ere egiten ez duzun pertsona batengandik datorrenean”.

– Mutila, 15 urte

“Lehengokoan ikusi nuen Lola Índigoren zalea den ilobak mezu erdi feminista bat jarri zuela, eta gainera jauzi zitzaizkion. Jazarpen digitala, hurrengo batean ezer ez esatera zaramatzana. Eta horixe ikusten dute gure neskek. ‘Ez zabaldu ahorik, ez erantzun, ez hartu parte, hauxe jasoko duzue-eta bestela’ ari zaizkie esaten”.

– Ingeniari informatikoa, komunikazio digitalean aditua eta unibertsitateko irakaslea

Garrantzitsua da aipatzea LGTBQ+ eta aniztasunaren inguruko neska-mutil taldeetan defendatu izan zela gehien adierazpen askatasuna, eta azaldu izan zirela gorroto diskurtsoen aurka, nahiz eta inoiz ez zen egin norberarengan bizitakoaren aipamen espliziturik. Alabaina, aipatu beharra dago inkestan nerabeen %11k gorroto mezuak jaso izanak zirela adierazi zutela.

“Emakumen eremu digitalean isilaraztera daramatzen mugimendu antolatu batzuen aurrean gaude, eremu digitalean ez dezagun parte hartu. Hor ez bagaude, AA horiek ere ez dituzte ikasiko gure diskurtsoak; aitzitik, diskurtso bakar bat egon da, eta hori zabalduko da AAren garapenetan”.

– Ingeniari informatikoa, komunikazio digitalean aditua eta unibertsitateko irakaslea

1.3. Berri faltsuak hautematea

Kontuan hartuz horixe dela Interneten bazterrik bazter dabilen informazioaren panorama, nerabeek ba al dakite Interneten berri faltsuak identifikatzen? Bada, horietako ia erdiek diote badakitela, %12k (11,9) ez dakiela erantzuten du, eta %40 “baldintzaturik” erantzuten du. Horrek esan nahi du nerabeen %50ak beti identifikatzen ez dakien berri faltsuak daudela.

“Nire ustean, hauxe da AAK egun duen erronka handienetariko bat, arrakalekin batera, areago oraindik AA sortzaileak zabaltzen hasi diren honetan: benetakoa dela ez dakigun eta, zenbaitetan, egiaztatzen oso zaila den edukia sortzen du bete-betean. Horixe izango da erronka handiena. Gezurrak, desinformazioa eta kontrolatzen zailak izango diren beste elementu batzuk hautematea”.

– Ingeniari informatikoa, komunikazio digitalean aditua eta unibertsitateko irakaslea

1. taula. **Badakizu nola identifikatu berri faltsuak Interneten?**

	Bai	Ez	Baldintzaturik	ED/EE
Neska	%38,5	%12,3	%48,3	%0,9
Mutila	%56,0	%11,2	%30,4	%2,4
Guztira	%46,9	%11,9	%39,5	%1,6


Informazio bat faltsua denaren susmoa dutenean hori egiaztatzeko jotzen duten iturriei buruz, bi erantzun nabarmentzen dira: %24k ez du egiaztatzen, eta, egiaztatzen dutenen artean, senideak eta lagunak dira egiaztatzeko iturri nagusia. Kezkagarria da lagun eta antzekoen inguruak, hain zuzen, berrien iturri berberetara jotzen dutela.

2. taula. **Interneteko informazioa faltsua denaren susmoa baduzu, zer bitarteko alternatibo erabiliko zenituzke egiaztatzeko (adierazi uste duzun guztiak)?**

	TV	Paperezko prentsa	Online prentsa	Irratia	Familiarekin edota lagunekin hitz eginez	Besterik	EE
Neska	%44,1	%17,0	%31,0	%8,0	%61,6	%0,5	%22,8
Mutila	%44,6	%16,9	%33,7	%12,0	%52,5	%1,7	%25,1
Guztira	%43,9	%17,0	%32,3	%10,1	%56,8	%1,2	%24,1

“Natibo digitalak izan daitezke, baina ez dute giza erako tresnarik kontra egiteko gezurrezko informazio piloari, *fake news* delakoei, negazionismoari, emakumeei edo migratzaileei errua bota nahian nerabeak bereziki erakartzen saiatzen diren muturreko ideien mugimenduei”.

– Erakunde publikoan eskola jazarpenean espezializatutako psikologoa



2. Bizitzeko eredu irrealen eta itxuraren eraginpea

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan edo Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasotzen diren kasuak bezala, beharbada, ezin bada ere indarkeria mota gisara sailkatu, gero eta kezka garriagoa da bizimodu jakin batzuek adierazpen idealizatuen, edertasun estandarren eta, bereziki nesken kasuan, gorputz femeninoaren sexualizazioaren inguruan sareetan dagoen esposizioak osasun mentalean izan dezakeen inpaktua.

Irudi idealizatu horiez gain, sareetan etengabe agertzen da bizitza pribatua oinarritutako negozio-eredua. Telebistan eta ohiko prentsan hasi zen fenomeno hori mundu digitalean garatzen ari da *influencer*en bidez, zeinak beren bizitza eta jarraitzaileena erakutsiz edonork dirua irabazteko aukera erakusten duten. Ondorioz, “intimitatearen” kontzeptuak beste esanahi bat du mundu digitalean.

Neskekin izandako elkarrizketetan, antzekotasuna sentitzen duten, aholkuak ematen dituzten edo “diren bezala” azaltzen diren pertsonen jarraitzen diete, baita pertsona ospetsuei ere, horien bizitza pribatuaren berri jakin nahi izaten dutelako. Adierazten dute ez direla elkarreraginean aritzen profil horiekin, baina horiek jartzen dutena jarraitzen dutela. Mutilek interakzio handiago aitortzen dute jarraitzen dieten pertsonekin, eta normalean bideo-jokoen edo kirolaren (batez ere, Twitch plataformaren bidez) munduarekin zerikusia duten pertsonak izan ohi dira. Antza denez, alde handia dago mutilen eta nesken artean sareetan jarraitzen dituzten estereotipo eta erreferenteei buruz.

“(...) pertsona horrekin identifikatuta sentitzera heltzea, eta horrek igotzen duena atsegin izatea, edo nola janzten den gustatzea... horrelako gauzak. Eta, baita ere ikustea egia dela *influencer* bat naturala dela, eta lagundu ere egiten du norbait horiekin identifikatuta sentitzera; baita, halaber, ikustea aholkuak ematen dituen betiko jendea, edo erakartzen zaituzten gauzak igotzen dituztenak, hori ere nahiko ondo dago, eta laguntzen du ikusten eduki barregarria, dibertigarria, entretenitu egiten zara horrela”.

– Neska, 16 urte

“(...) mutilek askotan... bada, motorreko, futboleko kontuak jarraitzen dituzte... adibidez, jende asko dago borroka librea eta antzekoak gogoko dituenak. Tira... neskek ere jarraitzen dute seguruenik, (...), tira, *streamer* asko... Gero, neskek ez dakit zer jarraitzen duten zeren... galdetu ere ez dut egin, baina uste dut... gauza bera izango da,

bakarrik... uste dut orriak gehiago erabiltzen dituztela erlaxatzeko edo beste neska batzuek bideoak ikusi eta horiei imitatu ahal izateko edo... ez dakit, bideoak ere grabatzeko. (...) Neskek ere, tira, asko idealizatzen dituzten ikusten dituzten neskak ere, eta, adibidez, uste dute horiek perfektuak direla eta alderatu egiten dira, eta arazo larria da hori”.

– Mutila, 16 urte

Influencer bati sareetan edo plataformetan jarraitzearen arrazoia edozein dela ere, figura horiek guztiek bi baliozkotze jasotzen dituzte jendearen aldetik beren bizitza pribatua erakusteagatik: baliozkotze ekonomikoa, jarraitzen dizuten edo zutaz hitz egiten duten pertsona kopuruaren arabera neurtzen den negozio-eredu bat delako, eta baliozkotze soziala, jarraitzaile eta interakzio kopurua handituz, jartzen dituzten irudiak edo berriak zenbat eta intimoagoak edo pribatuagoak izan orduan eta gehiago ugaritzen direnak.

Esposizio horren baliozkotze publiko eta, are, ekonomiko horrek neska-mutilak horiek errepikatzen bultzatzen ditzake, alderdi pertsonalagoak eta argazki intimoak edo sexualizatuak partekatzen eramanen, bereziki nesken kasuan. Neskek, gainera, jendearentzat desiragarriak diren gorputzetara moldatzeko presioa senti dezakete, eta kosifikazioan erori daitezke.

“Tratu ona sustatzeko programa berezi bat dugu, eta tailerrak autoestimuari eta autokontzeptuari buruzko saioekin hasi izan behar genituen; ikusten genuen online ingurunean gauzatzen ziren ondorio jakin batzuk berekin zeramatzaten gabezia bat zela. Horregatik, aurrenekoa zena landu beharrean ginen”.

– Hautzaro eta nerabezaro esku-hartze espezializatuko teknikaria

Hala, nesken kasuan garrantzi berezia du irudi horiek iraunarazten dituzten estereotipo sexisten inpaktua, edertasunaren, gorputzaren edo sexualitatearen adierazpenean eragiten dutelarik. Gizartean edertasunari eta gorputzko irudiaren kontrolari buruzko eskakizunek neskei eragiten diete gehienbat, eta halaxe gertatzen da ingurune digitalean ere. Genero-erolek eta -estereotipoek alderdi esanguratsua eratzen dute kosifikazioaren kontzeptualizazioan. Ondorioz, neskak gutxiagotasun eta urrakortasun egoeran aurkitzen dira hasiera-hasieratik mutilen aldean. Ondorioak bi mailatan adierazten dira: maila orokorrean, estereotipoak eta rol sozial estereotipatuak mantenduz eta indartuz jarraitzen da, arrakastatsuenak (partekatuenak eta jarraituenak) direlako; norbanako mailan, berriz, neskengan beren ongizate emozionalari eragiten dioten kontu batzuk sortzen dira, esaterako

autoestimua baxua edo norbere buruarekiko konfiantzarik eza, eta jokabide-nahasmenduak izatera edo beren gorputza zauritzera eraman ditzake. Mutilengan, aldiz, ez da ematen autoestimua eta kosifikazioaren arteko harreman dual hori, ez daude eta neskek bezala pertsona arteko kosifikazio sexualen horrenbesteko gertaeren eraginpean.

Interesgarria da aztertzea arestian aipatu ditugun ongizate emozionaleko kontuez gain bizitza-eredu irreal eta idealizatu horiekiko esposizioak beste inpakturik ere baduen neska-mutilek beren bizitzak hautemateko duten moduan. Txostenean inkestatutako nesken %27,4rentzat eta mutilen %22,4rentzat gauzak inoiz ez edo oso gutxitan gertatzen dira euren nahi bezala. Internet erabileraren faktorean sartu genuenean, horra etengabe edo egunean hainbat aldiz konektatuta daudela erantzuten duten nerabeen %86k erantzuten dute gauzak sekula ez doazkiela euren nahi bezala, eta %89k oso gutxitan goazkiela nahi bezala.

Gauza bitxia, *influencerak* edo *streamerak* ikusi beharrean euren ongizatea edo osasun mentala arriskuan jartzen duten elementu gisa ikusi beharrean, enpatia sentimenduak garatzen dituzte horiekiko, gogorra iruditzen zaielako bere bizitza erakutsi behar izatea garrantziak izaten jarraitzeko, jaso ditzaketan eraso eta kritikez gain.


“Neskek dira, zeren neskek dituzten gehienbat elikadura-nahasmenduak, segurtasunik ez duten pertsonak dira, autoestimua baxuarekin, bere buruarekiko oso zorrotzak eta perfekzio zaleak.

– Psikologoa, EPN duten arretan espezializatua

Adingabeko influencerak. Ez dugu ahaztu behar inguru digitalean badaudela ere eduki-sortzaile adingabeak, eta horiek beste neska, mutil eta nerabeengan eragin dezaketela. *Influencerak* aurre egin beharrean diren arriskuak bereziki larriak dira horiek adingabeak direnean, ingurune digitalean gehiegizko esposizioa izanez gero urratu egin ditzakeelako beren eskubideak eta kaltetu beren nortasun eta garapen pertsonala. Irudi, bideo eta beste datu pertsonal batzuk argitaratzen badira, pribatutasuna galtzeaz gain, areagotu egiten du pertsonaren urrakortasuna indarkeria digital mota ezberdinen aurrean, eta, are, online delituen biktima izan daitezke.

Haur *influencer*ak aztertzen ditugunean, gogoan izan behar dugu ezen, ingurune digitalean beren eskubide guztien titularrak izaten jarraitzen badute ere, 14 urte arte ezin dutela legezko baimenik eman beren informazio pertsonala zabaltzeko. Garrantzitsua da hori kontuan hartzea *sharenting*a bezalako jokabideak aztertzerakoan. Esposizio mota horietako ezer ez bada ere, berez, haurren kontrako indarkeria mota bat, arrisku handikoak izan daitezke, sareetan gehiegizko esposizioa emateagatik edo ematen uzteagatik, bizitza birtualari adin goiztiarrean ekiten diotelarik.

Beraz, funtsezkoa da Interneten adingabeen edukia partekatzeari lotutako arriskuez jakitun izatea, batik bat, plataforma irekietan, horietan materialaren gaineko kontrola galdu egiten delako, nahitaez, behin argitaratzen denean. Edozein testuingurutan, neska-mutilei erakutsi egin behar zaie beren datuak Interneten partekatzeak eta interakzio bakoitzaren ostean geratzen den “aztarna digitalak” zer esan nahi duen. Eta, nolana ere, eduki arduratsuaren argitalpena sustatu behar dugu.



3. Kasu baten azterketa: sareen analisia

Jarraian, edukien sortzaile jakin batzuen jarraitzaileen artean ematen diren interakzioei eta diskurtsoei buruzko analisi bat egiten dugu. Sozializazio espazio bat da, gehienbat maskulinoa, eta bertako erabiltzaileen artean normalduta dauden diskurtso eta estereotipoak ikus ditzakegu. Atal honetan, halaber, nerabeen artean helmen handia duten eduki sortzaileen jarraitzaileen edukiak ere aztertzen ditugu, emakumezko eta gizonezko eduki sortzailean artean bereiziz. Twitch, Discord eta Twitter plataformetako txatetako jarraitzaileen interakzioak aztertzen dira.

Azterketaren mugak. Sare sozialak, oro har, aztertzeko orduan arazo nagusi bat dugu, alegia, ezin dela jakin edukietara sartzen diren pertsonen adin zehatza. Hori dela-eta, jarraitzaile kopuru handia duten (milioitik gora, kasu batzuetan) emakumezko eta gizonezko profil jakin batzuk hartu dira erreferentziatzat. Sareek bertan arakutzen dabiltzanei edukirik biralenak eskainiz aritzen direnez, eduki hori nerabeen eskura egon daitekeela onartzen da. Aztertutako gune gehienek adina mugatu egiten dute bertara sartzeko; dena dela, “bai, 16/18 urte ditut” (kasuaren arabera) botoian klikatzea da sartzeko kontrol bakarra. Arestian aztertutako aldagai guztiak (saria biral egitea, eduki pertsonalen kontsumoa, “morboa”) kontuan, onartu egiten da adingabeak ere badaudela txat horietan aritzen direnen artean. Gainera, eduki-sortzaile horietako batzuk jarraitzaile oso gazteak, nerabeak barne, edukitzeari zor die beren ospea.

Twitcherako, zehazki, erabiltzaile edo *streamer* gisa parte hartzeko gutxieneko adina 13 urte da, nahiz eta erakusten dituzten eduki batzuk 18 urtetik gorakoentzat izan. Sartzeko aukera eskaintzen duten iturrien arabera, erabiltzaileen %22,3k 16 eta 24 urte bitartean dituzte, baina ez dago 16 urtetik beherakoen daturik, eta adina bakoitzak jartzen duena da.



3.1. Edukian eta diskurtsoan dauden aldeak generoaren eta sare sozialaren arabera

Arestian aipatu bezala, bereizi egin dira gizonezko *streamerak* eta emakumezko *streamerak* generoan oinarritutako diskurtsoetan diren diferentziak alderatzeko eta jarraitzaileen komunitateek jarraitzen dituzten dinamiketan alderik den ikusteko.

3.1.1. Gizonezko *streamerak*

Milioika jarraitzaile (3 milioitik 15 milioira bitartean) dituzten gizonezko *streamerak* hautatu ditugu, guztira 11 milioi orduko ikustaldi dituztenak. Guztiek jokabide arriskutsuren bat erakutsi izan dute, hauek barne: iruzkin sexual errepikariak partekatzea, pornografiaren usadiozko erreferentziak, eduki erotikoa/pornografikoa duten bideo-jokoen aipamenak (60.000 pertsonen ikustaldirekin). Horietako bi, gainera, ika-mikekin, sexu-abusu eta -jazarpenarekin, eta eskuin muturreko taldeekin loturak izatearekin hala nola *groomingarekin* nahastu izan dituzte, hurrenez hurren.

Twitcheko txaten azterketa

- » **Hizkuntza:** hauteman da adierazpen berriak erabiltzen dituztela plataformako debekuei iskin egiteko, “nopor” erabiltzen dute pornoa aipatzeko edo “nepe” zakila aipatzeko, esaterako. Estrategia horrekin berarekin, letrak zenbakiengatik ordeztzen dira hitz iraungarrietan; gaztelaniazko “puta” edo “cabrón”, esaterako “put4!” edo “cabr=n” bihurtzen dira. Mota horretako estrategiek adierazpen jakin batzuegatik hizkuntzan zentsura edo txatetik kanporatzea ekar dezaketen hitz jakin batzuk automatikoki hautematea saihesteko balio dute.

Gaiak aldatu egiten dira *streamak* aztertzen duen gaiaren eta kanalaren izaeraren arabera. Besteak beste, gai hauek nabarmentzen dira:

- » Harremani buruzko erreferentzia misoginoak, “simp” gisako kontzeptuak erabiliz arreta femeninoaren bila diren “maskulinotasun gutxiko” gizonak aipatzeko, edo “bodycount”, hau da, emakume batek bere bizitzan zehar zenbat gizonekin izan dituen harreman sexualak adierazteko, emakume gisa balioa gutxitzen dutenak.
- » Droga kontsumoaren banalizazioa.
- » *Streamerari* bereziki arbuioa erakusten dioenarekiko jazarpen-jarrerak.

- » Jazarpeneko jokabideekin, arrazistekin eta misoginoekin lotutako banerrak. Hasiera batean, bere txatean jokabide batzuk onartzen direla hautematen bada *streamera* horregatik sor daitezkeen ondorio negatiboetatik babesteko gertatu ohi dira kanporatze horiek. Izan ere, Twitchen politikak debekatu egiten dute arrazismoaren, indarkeriaren edo sexismoaren apologia. Beste batzuetan, barneko “joku” eta “arauek” eragiten dituzte banner horiek.

Twitteren (orain X) azterketa

Sare honetan ageri dira *streamer* horietako batzuen inguruan sortu izan diren ikamika eta horien jarraitzaileek kritika horien aurrean nola erantzuten duten. Ikamika horietan erasotzaileen jarrerak defendatu zituzten eta biktimak egiaztatutako egintzak ezbaian jartzen ahalegindu ziren.

Mota horretako jokabideek azaltzen dute horrelako *streamerek* beren jarraitzaileengan duten eragina, kontakizunak sortuz datuei eta egintzei buruz, beste testuinguru batzuetan gaitzesgarriak ziratekeenak ondoriorik gabe geratuz, are jarrera horiek salatzen dituztenen kontra presio eginez.

3.1.2. Emakumezko *streamerak*

Lehenik eta behin, esan behar da emakumezko *streamerak* askoz jarraitzaile gutxiago dituztela gizonezkoen aldean, eta alde nabarmena eragiten du helmenean.

Halatan, hautatu izan ditugun emakumezko *streamerak* 3 milioi eta 300.000 jarraitzaile bitartean dituzte, eta guztiek larritasuneko denetariko erasoak jasan izan dituzte sare sozial ezberdinen bidez, dela sexu-abusuaren biktimak defendatzeagatik, dela bikote ohi baten tratu txarrak ikusarazteagatik nahiz estereotipo estetikoak (depilazioa, makillajea, etab.) ez betetzeagatik edo gizonezko beste *streamer* batzuekin batera jazarpeneko jokabideetan nahastuta egoteagatik.

Lehen-lehenik, azpimarratu beharra dago Twitchen “Pools and Hot tubs” izeneko kategoria bat dagoela, emakumeek bakarrik egiten dutena, eta igerileku eta jacuzietan bainujantzian diren emakume hipersexualizatuak agertzen dira. Horrez gain, kontuan izan behar dugu plataforma horretan gizonezko *streamerak* (jarraitzaile gehiago dituzte) direla *streamer* txikiagoei arrakasta ekar diezaiaketenak haien kanaletara gonbidatzean, eta hori sarritan gertatzen da emakumezko *streamerekin*.

Txatei berei dagokienez, berriz, konnotazio sexuala duten aipamen gutxiago dituzte, baina gogoratu beharra dugu mezuak ez direla blokeatzen edo ezabatzen. Hala eta guzti, *streameraren* edertasunari edo titiei buruzko iruzkinak agertzen

dira. Ikusten denez, txatek *streamer*aren gaiei jarraitzen diote, iruzkin gehiago daude emakumezko *streamer*ek jokatzeko moduari buruz, eta baita haien jokoa hobetzeko aholku batzuk ere.

X-en (Twitter) ageri dira *streamer* horietako batzuen inguruan sortu izan diren ika-mikak eta horien jarraitzaileak kritika horien aurrean nola erantzuten duten. Horietako bat, adibidez, kanporatu egin zuten sektoretik *grooming* eta jazarpen egoera bat salatzeagatik. Makillajea erabiltzeagatik (eta ez erabiltzeagatik) ere kritikak jaso ditu. Beste aldetik, bere bikotekidearekin batera jazarpen-kasu batean nahastutako emakumezko *streamer*ak jaso zituen kritikarik handienak jokabide horiengatik, nahiz eta biak aritu ziren. Baina gizonezko *streamer*ekin gertatu ohi den moduan, emakume hark ere babesa eta ulermena jaso zuen bere jarraitzaile komunitatearengandik.

Konklusioa: gizonezkoak jarraitzaile gehiago dituzte, eta gehiago, biolentoago eta sexu kutsu gehiagorekin aritzen dira. Aldi berean, haren komunitatea leialagoa zaio eta erraz barkatzen dizkio bere ika-mikak. Emakumezkoak, berriz, jarraitzaile gutxiago dituzte, eta beren jokoa hobetzen “azaldu” eta lagundu egiten diete, kritika handiagoak jasotzen dituzte beren fisikoagatik, eta tolerantzia gutxiago eta gogortasun gehiago jasotzen dute ika-mika bat sortzen denean. Beraz, diferentzia sexista bat dago *streamer* horiek tratatzerakoan, eta emakumezkoek online munduan jasotzen duten tratua isla da. Zerizanezko kontua da gurasoek eta zaintzaileek jakitea euren seme-alaben erreferenteak mezu eta estereotipo jakin batzuk interpretatzen eta iragazten lagundu ahal izateko.

Influencerak arautu? 2024ko apirilaren 30ean, presako izapidetze-prozesu baten bidez, 444/2024 Errege Dekretua onartu zen, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorraren 94. artikulua garatuz. Errege Dekretu horren bidez, plataformaren bidez bideoak trukatzeko zerbitzuen erabiltzaile garrantzitsu izateko baldintzak arautzen dira.

Errege Dekretu horrek onartzen du figura horien eragina gero eta handiagoa dela, kontsumoaren eta publizitate-inbertsioaren ikuspegitik, batik bat, gazteen artean. Horregatik, erabiltzaileak gehiago babestu nahi ditu, arreta berezia jarriz erabiltzaile adingabeak ikus-entzunezko edukien eta komunikazio komertzial kaltegarrien aurrean babesteko. Horrela, testu berriak *influencer*en figura garatzen du, 13/2022 Legearen 94. artikuluan jada “garrantzi bereziko erabiltzaile” gisa aitortua dena, *influencer*en diru-sarreretan eta entzunaldian oinarritutako irizpideak ezarriz:

- **Diru-sarrera esanguratsuak:** bere jardueratik eratorritako 300.000 euroko edo hortik gorako urteko diru-sarrerak; lege-testuak diru-sarrera esanguratsuak zehazteko konputagarriak izango diren diru-sarrera motak jasotzen ditu.
- **Audientzia esanguratsua:** milioi bat jarraitzaile edo gehiago plataforma bakar batean edo 2 milioi edo gehiago jarduera garatzen duen zerbitzu guztietan, urtean 24 bideo partekatuta, gutxienez.

Irudi horiek ikus-entzunezko komunikazioaren beste zerbitzu-emaile batzuekin parekatzen dituzten antzeko ezaugarriak dituztela jotzen da, eta, beraz, gainerako zerbitzu-emaileekin pareka daitezkeen betebeharrak aplikatu behar zaizkiela.

Hala, *influencer*ak behartuta daude edukiak adinaren arabera etiketatzea, baita publizitatearen esparruan ere, eta ezingo da alkoholaren, tabakoaren edo sendagaien publizitaterik egin, ezta adingabeei kalte egiten dien besterik ere.

Izan ere, ikusten ari garenez, *influencer*aren figura gero eta garrantzi handiago hartzen ari da, eta, beraz, ahaleginak egin behar dira figura horren erregulazioan aurrera egiteko. Hala ere, erregulazio horrek ez du merkataritza-kontu huts batean geratu behar; aitzitik, arriskuak eta kezkak sortzen dituzten beste gai batzuei ere heldu behar die, eta eduki kaltegarrietatik, gorroto mezuetatik edo informazio faltsutik diskurtsoarekin berarekin lotutakoei eta zabaltzen duten edukiarekiko izan dezaketen erantzukizuna arautu behar da. Halaber, garrantzi bereziko figura horiek informazio faltsua zabaltzen badute, zer araudi aplikatu behar den argitu behar da.



Horri dagokionez, aipatzekoa da Ministroen Kontseiluak 2024ko ekainaren 4an onartutako Ingurune Digitaletan Adingabeak Babesteko Lege Organikoaren Aurreproiektuak, seigarren xedapenaren bidez, 13/2022 Legearen 94.1 artikulua aldatzen duela. Testuan aurreikusitako aldaketak izapidetze-fasean daude oraindik dokumentu hau idazteko unean, eta garrantzi bereziko erabiltzaileei zabaldu nahi diete adingabeak garapen fisiko, mental edo moralerako kaltegarriak diren edukietatik babesteko betebeharrak betetzea, 99. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitakoak.



4. Konklusioak

Eskubideak Konexiorik Gabe txostenean jasotzen dugunez, mundu digitala etengabeko kontraesana da, eskubideen sarbiderako tresnak hala nola ongizatea eta segurtasuna mehatxatzen duten elementuak eskaintzen ditu, mundu fisikoan gertatu izan den eta gertatzen den modu berean. Horrenbestez, eskubideen ikuspegian oinarritu behar da ingurune digitalean haurren eta nerabeen gaineko babesak.

Ingurune digitalari lotutako arriskuen artean, ikusten dugu informazio faltsua eta gorrotoa eta estereotipo kaltegarriak sustatzen dituzten diskurtsoak daudela. Sare sozialak bihurtu dira nerabeentzako bigarren informazio-iturri nagusia, familiaren eta lagunen atzetik eta telebista eta online prentsa bezalako bitarteko tradizionalen aurretik. Kezka eragiten du neska-mutilek ezagutzarik edo behar bezalako informaziorik ez duten edo kontu faltsuak edo informazio okerrak zabaltzen dituzten profil batzuen bidez atzitzea informazioa. Kezka hori areagotu egiten da nerabe askok Interneten berri faltsuak identifikatzen ez dakitela jakitean.

Bestetik, nerabeek aitortzen dute gorrotoa eta estereotipo arrazistak eta sexistak sustatzen dituzten sareetako edukien eraginpean daudela. Mutilak zaugarriagoak dira genero-indarkeria eta status quo matxista, arrazista eta homofobikoarentzat mehatxu diren beste gizarte-mugimendu batzuk ukatzen dituzten diskurtsoen aurrean. Aldiz, neskak dira gehienbat diskurtso horien jasotzaileak, eta mezu oldarkorrek eta iraingarriak jasotzen dituzte. Horientzat, ingurune digitala haien kontra egiten duen espazio bat da. Gainera, neskei gehiago eragiten die sare sozialetan bizitzaren adierazpen idealizatuen eta edertasun estandarren etengabeko eraginpean direlako, eta haien osasun mentalaren kaltetan izan daiteke. Gorputz desiragarrietara moldatzeko presioak eta kosifikazioak, bereziki, autoestimua baxua eta konfiantza falta dakarte, eta bide eman diezaiekete jokabide-nahasmenduei eta beren gorputzak lesionatzeko joerari.

Streaming plataformetan estereotipo eta mezu horiek zabaltzen dituzten diskurtso kaltegarriak normalizatzen badira, kanal horietako jarraitzaileek ere irentsi egingo dituzte. Halako mezuak behin zabaltzen direnean, oso zaila izan daiteke horien kontra egin eta desaktibatzea.



5. Informaziorako eskubidea bermatzeko neurriak

Haurrek eta nerabeek informazio fidagarria eta askotarikoa jasotzeko eskubidea dute, interes komertzial edo politikoetatik independenteak diren edukiak barne. Eskubide hori bermatzeko, funtsezkoa da jasaten duten informazioaren osotasuna eta kalitatea bermatuko duten neurriak ezartzea.

- Informazio automatizatuaren bilaketak eta edukiak hautatzeko algoritmoek ez dituzte lehenetsi behar motibazio komertziala edo politikoa duten edukiak. Horretarako, neurri egokiak hartu behar dira berri faltsuei eta diskriminazioa edo gorroto mezuak bultzatzen dituzten edukiei aurrea hartzeko. Neurri horiek enpresek, hornitzaileek eta administrazio publikoek ezarri behar dituzte, eta eskubide guztiak orekatu behar dituzte, informazio arbitrarioa mugatzea eta adierazpen-askatasuna mugatzea saihestuz.
- Hezkuntzak berebiziko garrantzia du neska-mutilek egiazko informazioa eta gezurrezkoa bereizteko duten gaitasunean. Estatuak beharrezko baliabideak eman behar dituzte haurrei eta nerabeei zuzendutako teknologien erabilera seguruan eta arduratsuan prestakuntza sustatzeko eta bermatzeko, ingurune digitaleko informazio-iturrien fidagarritasuna eta sinesgarritasuna ebaluatzen, egiazkoa ez den informazioa identifikatzen eta kontrastatzen eta gorroto diskurtsoen hedapenaren atzean ezkutatzen diren mekanismoak ulertzen lagunduko dieten tresnak barne. Interneten zabaltzen diren mezu misogino eta eredu sexisten kopuruak, neskei eta mutilei modu berezian eragiten dietenak, agerian uzten du premia dela berdintasunean hezte eta hezkuntza afektibo-sexuala, arautua eta progresiboa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatuko duena eta generoen estereotipoak eta erreferentziazko eredu berriak mundu digitalean ere uztartzen dituenak.
- Familiak eta eskolak funtsezkoak dira hezkuntza-prozesu honetan, eta engaiatuta egon behar dira. Horretarako, haurrei ikaskuntzan laguntzeko baliabideak eta prestakuntzak eman behar zaizkie, ingurune digitalean nabigazio arduratsua, segurua eta kritikoa egin dezaten.
- Eduki kaltegarriak prebenitzeaz gain, garrantzitsua da ingurune digitalean eduki positibo eta hezitzaileen ekoizpena eta hedapena sustatzea. Horren barruan sartzen da informazio egiazkoa, hezitzailea eta kulturala

sustatzea, haurren eta nerabeen garapen integralari lagun diezaiokeena. Plataformekin eta komunikabideekin lankidetzan aritu behar da, eduki horiek sortzeko eta zabaltzeko.

Neurri horiek eraginkortasunez ezartzeko, eragile askoren lankidetzan behar da, besteak beste, administrazio publikoen, enpresa teknologikoen, hezkuntza-erakundeen, familien eta, oro har, gizartearen lankidetzan. Ahalegin bateratu baten bidez bakarrik berma daiteke haurrek eta nerabeek eskura izatea egiazko informazio seguru eta askotarikoa, ingurune digitalean informazioa jasotzeko duten oinarritzko eskubidea babestuz.





ESKUBIDEAK
#KONEXIORIKGABE

